

## "Euskaltzaleak" eta hizkuntza ardurak

*Euskaldunon Egunkaria*, 1996-03-17: 29.

*Euskaltzaleak* ez da, batzuetan uste izan den bezala, Aitzolen lorpena; honek egina aurkitu zuen dagoeneko euskal fronteko lehen lerroan ari zen Arrasaten, 1927an eratu zuten *Euskera eguna* dela eta, baina apaiz gazteak dinamizatu zuen gehien bat gero bere Idazkaritzaren ardura hartu zuenean.

Hemendik sorterazten ditu zenbait ekimen: *Antzerki Eguna*, antzezpenak herriz herri; *Olerti Eguna* (1930-36), irabazleak, urtez urte: Lauaxeta, Lizardi, Bedoña, Patxi Etxeberria, Zaitegi, Jautarkol, eta 1936koa, ekainak 28, Iñaki Otamendi; *Bertsolari guduak* (1935-1936), irabazleak: Basarri (Kursaalean, 1935ean) eta Txirrita (Victoria Eugenia 1936ko urtarrilean).

Eskola euskaldunak lortzeko ahaleginetan ibili zen.

Euskera batuaz arduratu zen, Lizardirekin batera, lehendik Azkue, Sabin Arana, Campion eta Broussain, eta azken aldiko bat aipatzeko, Koldo Mitxelena gero arduratu zen bezala.

Egunkari euskalduna egiteko "milioi erdi bat pezetaren" bila ibili zen.

Orixeri *Euskaldunak* idazteko eskaera berak egin zion, "urrezko apaindurekin argitaratzeko" asmotan.

Sozial arazoaz ere, bi hizkuntzetan, bera arduratu zen, hitzaldietan eta idazten; *El Día*-n atal berezi bat sortu zuen, *El Debate* katoliko espainola bera honetaz arduratu ere ez zenean.

Eta idatzi zituen garai eta egoera hartan euskara gai dela liburu garrantzitsuak: *La democracia en Euzkadi*, *Lucha de idiomas en Euzkadi*, *en Europa*, eta *La muerte del euskera o los profetas de mal agüero*, aipatutako egunkarian bertan zatika argitaratua, eta gero liburuxka bezala irarria.

Beste kazetaritzako (*El Día*, *Euzkadi*) lan erraldoiaz gainera hau dena sei urtetan egiteak ez du iharduketa arrunta adierazten.

Hau da, beste gauza askoren artean, Jose Ariztimuño *Aitzol*.